

mintegia

2007ko apirilerako aurreikusten den mintegiaren helburua da Arma Alardeak edo antzeko ospakizunak egiten diren hiri eta herrietako parte hartzaileen topagune bihurtzea Antzuola. Ponentziak, komunikazioak, mahai-inguruak, eztabidak eta proposamenak izango dira nagusi. Honek, alderdi zientifikoaz gain, badu bere alde praktikoa ere, hainbat herritako Alarde ospakizunak herrian ikusteko aukera izango dugulako: Elorrio (Bizkaia). Hondarribia (Gipuzkoa). Heleta (Nafarroa Beherea). Larrea (Araba). Legazpi (Gipuzkoa). Makea (Lapurdi). Tolosa (Gipuzkoa). Irun (Gipuzkoa).

El Ayuntamiento de Antzuola y la agrupación cultural Mairuaren Alardea, con la colaboración técnica de Eusko Ikaskuntza, van a desarrollar un proyecto para la elaboración de un estudio socio-cultural y un seminario sobre los Alardes. Dicho proyecto dará comienzo en el mes de diciembre de 2006 con una primera fase del estudio socio-cultural, y terminará con la organización del seminario a finales de abril de 2007.

Estudio socio-cultural del alarde en antzuola

El objetivo de este estudio es conocer de primera mano la opinión de los antzuolarras sobre dicho acto, y diagnosticarlo en su correspondiente medida, para posteriormente estudiar las posibilidades de encauzar su futuro. En este sentido, solicitamos la colaboración de todos para que tomen parte expresando su opinión al respecto.

Seminario sobre “los alardes en euskal herria”

Será un punto de encuentro de los diferentes pueblos de Euskal Herria que celebran Alardes de armas o similares. Las ponencias y exposiciones, mesas redondas, debates y propuestas incitarán a los y las participantes a la reflexión de la evolución y dinámica del Alarde de su propio pueblo. Por otro lado, podremos visualizar un desfile conjunto de los diferentes Alardes participantes: Larrea (Araba), Elorrio (Bizkaia), Hondarribia-Irun-Legazpi (Gipuzkoa), Makea (Lapurdi), Heleta (Nafarroa behera).

mairuaren ALARDEA

Ikerketa
soziokulturala
eta mintegia



Babesa:



gizarte elkintza
obra sozial



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kudeatzailea:



adaki.com



Antzuolako Udala



mairuaren
alardearen
kultur
elkartea

Zure bakarkako ekarpenak ere egin nahi badituzu, erabil dezakezu korreo elektronikoa hau: kultura@antzuola.net

sarrera

Antzuolako Udalak eta Mairuaren Alardearen Elkartek, Eusko Ikaskuntzaren koordinazioarekin batera, 2006ko abendutik hasi eta 2007ko udazkeneraino luzatuko den egitasmo bat aurkeztu nahi dizu.

Antzuolako Alardeak garai berriei uko ez, baizik eta han eta hemen gizarte honetan gertatzen diren aldaketekin bat egin nahi du. Zertarako? Orain arte egindako bidea aztertzeko eta aurrera begiratuz datorkiguna hausnartzeko.

Hala ere, prozesu honetan bidelagunak behar ditugu, eta Antzuolako alardearen gaurko egoera eta etorkizuna herritarrekin konpartitu nahi dugu. Beraz, animatu nahi ditugu herritarrak, herriko elkarteak edota beste edonor lagun diezaguten prozesu aberats eta erakargarri honetan, horretarako jarriko ditugun eztabaidaguneetan parte hartuz.



azterketa soziokulturala

helburuak

Esan gabe dago gero eta zailagoa egiten zaigula denoi jai hau antolatzea. "Urtero betikoak" ari direla jai hau kudeatzen ere jakinekoda da, eta belaunaldi berrien, baina batez ere gazteen inplikazioa gero eta urriago dela.

Antzuolako herritarren laguntzarekin, azterketa honen helburu nagusia da une honetan Alardeak bizi duen egoera baloratzea. Horren arabera jakin ahal izango dugu zein den ekintza horren inguruan dugun diagnostikoa, ondorioz datozen urteetarako irteerak diseinatzen hasteko.

metodologia

Arlo soziokulturaleko elkarten ordezkariekin batera, edozein herritarrek parte har dezake, horretarako antolatuko diren eztabaida taldeetan edota bakarkako elkarrizketetan.

egutegia eta ikerketaren aldiak

Lehen fasea (2006ko azaroa-2007ko urtarrila):

Testuinguru historiko eta sozialaren azterketa

1.1. Azterketa bibliografikoa

1.2. Testuinguru soziodemografikoaren hurbilpena

Bigarren fasea. Landa-lana (2007ko urtarrilatik apirilarte):

Elkarrizketak

Antzuolako Alardean edo bere antolakuntzan parte hartzen dutenei.

Antzuolako jarduera soziokulturalean aktiboki parte hartzen duten pertsonen, taldeen, elkarteen edo bestelako antolakuntza ordezkariak.

Hirugarren fasea (2007ko apirilaren amaieran):

Adituei eta eztabaida taldeei egin beharreko elkarrizketak eta Alardeei buruzko Mintegian egingo direnak.

Laugarren fasea (2007ko ekaina eta uztaila):

Mairuaren alardearen prestakuntza eta egitearen behaketa.

Bostgarren fasea (2007ko iraila eta urria):

Txostenaren idazketa eta emaitzen aurkezpena.